

ARTIUM

Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo
 Vitoria-Gasteiz
www.artium.org

Galduez eta berreskuratuz. Javier Hernández Landazabal**Aretoko testuak**

«Zure gaia denbora da, denbora etengabea.

Une bakarti bakoitza zara. »

Jorge Luis Borges. *La moneda de hierro*. 1976 (itzulpena)

Sarrera

[...] irudikapenaren ideia da, artearen funtsezko gaia, Hernández Landazabal-en lanek transmititzen duten irudi boteretsua. Artistaren egiteko moduez at, deigarria gertatzen da zer nolako konplexutasunez heltzen dion gai horri, ia irudikapenaren kontzeptuak gaur egungo garai hauetan bizi duena bera. Aukera ugariak —hizkuntzak, eskuzkoak, mekanikoak, teknologikoak, izatekoak diren egiak eta oraindik ezezagunak baina litezkeenak— irudikapenaren diskurtso enblematikoa, bereizgarriena erabat irensten duten kontingentzien amalgama nahasi bat dute emaitza, mataza itxura duen objektu bihurtzeko, presentzia tartekatu ugariarekin.

Berez, argi eta itzalen, gorputzen eta ikonoen joko honen pieza guztiei banan-banan begiratuko bagenie, oso erraza litzateke artistaren asmo garbiak azaleratzea, baina bere osotasunean ikusi behar da, dena denarekin lotuta dagoen instalazio batean bezala, halako hotzean egoste batean, berez antzeppen kontzientearen lehen jatorria den antzerki-itxura hori emanez eta, beraz, artearen zentzuarena, benetako basakeriaren antidoto eta katarsi garbitzaileen abiarazle gisa.

Tiempo muerto

[...], eta erlojuak, zorrozki hartuta inoiz ordua markatzen ez duten erloju batzuk.

La suerte y la muerte

[...] tramankulu sinesgaitz bat, botoi bat zapaldu, sareari lotu edo gider bati eraginda abian jartzen dena. Orduan, harrigarriro, keinu-dantza bat hasten da, eta ziurtasunen mimika bat igortzen da espaziora, zalantzen beste mekanika bat besarkatuz, eta biek, beren sintonian, unibertsoaren izatea eraentzen dute erabat

Sillón de abrazos

Benetako koreografia bati egokitutako hiru dimentsioko collageak dira. Gailu keinukariak, begirada hipnotiko eta errepikakor batera garamatzatenak, ezinbestean. Antzokitxoak dira, era berean, non beren presentzia egitekotsuaren arrazoari buruz galdetzerara behartzen gaituzten ekintza setati eta amaigabeak garatzen diren.

That is the question

[...] gaur egun zabalduta dagoen sentipena da artea paradoxa batean murgilduta dagoela, non etengabe biraka dabilen gurpilaren barruan harrapatuta dagoen saguaren antzekoa den, irtenbiderik gabe, eta, hain azeleratuta baitago, horrek ez baitio uzten gelditu eta bere eginkizunean, airean daraman gizartean duen paperean, pentsatzen.

Desocupación espacial de una esfera

Paradoxak, kritikak, ironiak, hizkuntzak eta halako nihilismo batek osatzen dute munduaren egungo interpretazioaren boskote irabazlea, eta beraz, artea aipagai duen artearen kiribilaren aurrerapen hori oso egokia da gaur adierazpen garaikideek osatzen dutenaz ondorioak atera nahi baldin baditugu.

Grill Bosch

[... irudikapenaren ideia sortzen duten...] paradoxek beren izatearekin berriz elikatzen diren objektu konplexuak sortzen dituzte azkenean. Arteaz mintzo den artearen beharraren agerikotasuna egiaztatzeko egindako benetako gailuak dira

De lo perdido y lo recuperado. Javier Hernández Landazabal

Textos en sala

«Tu materia es el tiempo, el incesante tiempo.
Eres cada solitario instante.»
Jorge Luis Borges. *La moneda de hierro*. 1976

Introducción

[...] la idea de representación, sustancia esencial del arte, es la poderosa imagen que transmiten los trabajos de Hernández Landazabal. Más allá de los modos de hacer del artista, resulta llamativa la complejidad con la que aborda este tema, casi la misma con la que el propio concepto representacional convive en tiempos como los actuales, en los que a causa de las múltiples posibilidades lingüísticas, manuales, mecánicas, tecnológicas, certezas en proyecto y aún desconocidas pero probables, dan como resultado una amalgama enredada de contingencias que absorbe por completo el discurso más emblemático, más distintivo de la representación, para convertirse en un objeto con forma de ovillo con múltiples presencias intercaladas.

En realidad, si observáramos por separado todas las piezas de este juego de luces y sombras, de imágenes, cuerpos e iconos, sería muy sencillo desentrañar las claras intenciones del artista, pero lo que procede es verlo en conjunto, como una instalación en la que todo se relaciona con todo en una especie de cocción en frío dándole esa presencia teatral que en el fondo es el primer origen de la representación consciente y, por tanto, del sentido del arte como antídoto contra la barbarie real y como detonante para las catarsis purificadoras.

Tiempo muerto

[...],. y relojes, algunos relojes que nunca marcan las horas en sentido estricto.

La suerte y la muerte

[...] un artefacto inverosímil que, al pulsar un botón, al conectarlo a la red eléctrica o girar una manivela, se pone en movimiento y sorprendentemente comienza un ballet de gestos, que lanzan al espacio una mímica de certezas abrazada a otra mecánica de dudas que, en su sintonía, rigen definitivamente la existencia de su universo.

Sillón de abrazos

[...] un collage tridimensional ajustado a una coreografía real. Dispositivos gestulantes que nos apelan a una inevitable mirada hipnótica y repetitiva. Son, también teatrillos, en los que se desarrollan actos tozudos e infinitos que nos hacen interrogarnos sobre la propia razón de su presencia ajetreada.

That is the question

[...] hoy se extiende la sensación de que el arte se encuentra inmerso en la paradoja en la que es similar a un ratón dentro de la rueda sin fin que gira infinitamente, encontrándose sin salida, lo que le impide parar a pensar su función, su papel en una sociedad tan acelerada que se lo lleva por delante.

Desocupación espacial de una esfera

La paradoja, la crítica, la ironía, el lenguaje y cierto nihilismo forman el quinteto ganador de la interpretación actual del mundo, por lo que esta anticipación del bucle del arte que alude al arte es muy pertinente si pretendemos extraer conclusiones de lo que hoy es el sistema que componen las manifestaciones contemporáneas.

Grill Bosch

[... las paradojas que provocan la idea de representación...] terminan por dar lugar a objetos complejos que se retroalimentan con su propia existencia. Son verdaderos dispositivos fabricados para constatar la evidencia de la necesidad del arte que habla del arte.